

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pedro Mari Illarreta Peñagarikano

*Donostia,
Gipuzkoa
(1937)*

Aurkibidea



Biografia



Donostiako Aiete auzoan jaio zen, Gurugu etxean. Gurasoak ere aietearrak zituen, baserritarrek. Hiru senide ziren. Alkiza baserriaren zati bat beraien esku zegoen; baratzea eta animaliak zituzten han. Ama eta izeba San Martin azokara joaten ziren tratuarekin. Aieteko elizan monagilo (eliz mutil) lanak egin zituen. Pixka bat koskortutakoan Antiguara joaten zen eskolara, maristen Munibe ikastetxera. Hainbat lanetan ibili zen: arotz, gas lantegian... saltzaile moduan egin ditu urte gehien, Bilboko laborategi batentzat. La Salle taldean egiten zuen dantza, eta dantza irakasle ere izan zen. Donostiar batekin ezkondu zen, eta hiru seme-alaba izan zituzten. Ehiza eta arrantza gustatzen zaizkio.

Zintak

DON-074

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-02-09
- **Iraupena:** 129 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Gurugu etxean jaioa

- **Erref:** DON-074/002
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:00:41. **Bukatu:** 00:02:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Gurugu etxean jaio zen, Aieten. Sei pisuko etxea zen. Patrixi Garitano izan zen komadrona. Afrikako Gurugu menditik dator etxearen izena.

2. Goiko Altza zen lehen

- **Erref:** DON-074/004
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:03:22. **Bukatu:** 00:03:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Aiete Goiko Altza zen lehen; bitan zegoen zatituta: Lugaritz eta Goiko Amara. Jaxinta katua agertu da.

3. Aiete auzoaren izena nondik datorren

- **Erref:** DON-074/006
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:04:10. **Bukatu:** 00:07:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Lugaritz auzoari Antiguako parrokia tokatzen zitzaion, baina Aieteko elizara joaten ziren mezetara. Aieteko jauregiak eman zion izena elizari eta baita auzoari ere. Aita Ugalde baserrikoa zen; amaren aita ere bai, ondoko bizitzakoa. Ama Puiokoa zen. Baserri horiekin zer gertatu zen. Aita Munton hazia da.

4. Barazkiekin, loreekin eta esnearekin plazara

- **Erref:** DON-074/008
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:07:50. **Bukatu:** 00:11:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Munto aurreko baserria, Alkiza, aitonarena zen; zati bat beraiek erabiltzen zuten eta bestea izeba-osabek. Ama izebarekin joaten zen San Martin plazara tratuarekin. Zaldi-karroa. Ilarrak Nicolasa jatetxean saltzen zituzten. Sisofila lorea. Animaliak. Esnea, etxez etxe. "Parrokia".

5. Txerri lanak

- **Erref:** DON-074/010

- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:11:31. **Bukatu:** 00:15:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Esnea partitzean txerrijana biltzen zuten. Txerria hiltzen zuten urtero, auzokoek lagunduta. Mutikotan egurra txikitzea zen bere lana. Baserritarren elkarteak ere hiltzen zuen txerria eta kideen artean partitu. Kontserbatzeko, gatzeta.</p>

6. Monagilo lanak eta bihurrikeriak

- **Erref:** DON-074/012
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:15:08. **Bukatu:** 00:17:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Sei urtetatik 12 urtera arte monagilo (eliz mutil) ibili zen. Bihurrikeriak. Baloia nola egiten zuten, futbolean egiteko. Iltzezko botak. Guardak ez zien uzten. Txoritan ibiltzen ziren, eta bonbillak hausten tiragomarekin.</p>

Transkripzioa

-Eta zu monagillo ere ibilitakua zea.

-Bai, bai, sei urtekin monagillo, hamabi, hamabi-hamahiru urte arte monagillo. Bai. Ta han ibiltze(n) giñan, ba barrabaskeriyak egiten.

-Eta ze, ze egiten zenuten ba?

-Puuf. Asko, gauza asko. Klaro, eske ez genun toki bat hola jolasteko. Jolasteko aitzen giñan kamiñuan. Jolasten, klao, ordun bi ordutik behin pasatzen zan kotxe bat. Eta, eta geo futbolian ta /da/... futbolian ´e baloirik ez genun, eta iten genun (onduakin?), soka batzukin ta bola batzukin ta... lotu ta harrekin. Danak, berriz, ordun ibiltze(n) giñan botakin. Bota, iltzezko botakin, ordun. Danak. Ta han ostikoka bata bestiai.

-Iltzezko botak nolakuak dia ba?

-Ba zitun, e, zea, azpian, o nahiz goma o larrua euki biharrian ba iltziak. Iltziak, o zea, iltze... sujetatuba azpiya dana iltzez. Ta ze, iltzezko botak. Ta ordun gazte danak gu iltzezko botakin ibiltze(n) giñan. Ta harrekin fubolian. Ta guarda ikusten genunen zatorrela, korrika danak.

-Guardak ez zun uzten futbolian iten?

-Ez zun /etzun/ uzten. Ez zigun /etzigun/ uzten. Ta gero dana galaziya genun. Geo txoriyak harrapatzea juten bagiñan, hua´re, erreklamua ere, hua´re galaziya. Ta beti han korrika. Kaiyolakin bihar zela, geo beste batzutan tiragomakin. Tiragomakin, ta orduan iten genun ba bonbillak hautsi. Gabian jun ta /da/: "O, horri jo baietz, jo ezetz...". Ta klaro, bonbilla danak iten genitun hautsi, tiagomakin.

-Hori, nungo bonbillak? Kale... faroletakuak?
-Kamiyoko zea, argiya ite(n) zuenak. Ta hala ibiltze(n) giñan.

7. Txoritan tiragomarekin eta erreklamoon

- **Erref:** DON-074/013
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:17:07. **Bukatu:** 00:19:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Ehiza. Txori motak. Erreklamoon nola ehizatzen den. Tarina, karnaba...

Transkripzioa

-Eta txoriak harrapatzen ta /da/...
-Beti korrika.
-Txoriak harrapatzen, zerekin, tiragomakin ala...?
-Tiragomakin´e bai, pikotan ta /da/. Bai, harrapatzen genitun.
-Ze txori klase harrapatzen zenituzten?
-Ba txinbuak eta burrugoiak eta gero erreklamuan jartzen giñanian, ba karnabak eta txokak eta... pintxanak eta... bai, harrapatzen genitun.
-Eta erreklamua zer... zer zan?
-Erreklamua zan ba... jartzen genitun bi arbol txiki, erramuenak. Soroan, toki garbin. Eta han jartzen genitun, han goiyen kanutuak bezela, txiki bat, eta geo bareta bat hola, bareta bat, bixkakin jarri bareta, han jarri, ta jartzen genitun han zortzi o hamar bareta bat, ta azpin jartzen genitun ba txoriak, erreklamuan, txoriak etxian genitunak. Kaiyolak jartzen genitun, ta haiyek deitzen ziyoten ta erramuan gelditzen zienen, pegatuk geatzen zien, eta ordun korrika jun ta /da/ harrapatu! Ta berriz jarri ta hola ibiltze(n) giñan.
-Eta ze iten zenituen gero txoriyekin?
-Jan.
-Jan?
-Hoixe!
-Baiña esan dezu batzuk etxian kaiyoletan...
-Bai.
-Erreklamo bezela...
-Erreklamo... reklamora joateko, bai. Bai, tariñak gehienez; eukitzen genitun, "o sea" nik behiñik biñ euki izandu (d)itut tariña, karnaba, pintxana, baiño pintxana zaila zan ona ateatzia, deitzeko hola ekarriazteko.
-Ez?
-Oain, baiño tariña zan denetan errexena etortzen zana. Ta geo karnaba ere bai. Eta gero bestia izaten zan berdeloia, ta txiniskla ere bai, hori´re... hoiek´e errex zien etortzen, hoiek harrapatzen genitun ondo. Ta hola ibiltze(n) giñen. Gero...
-Eta gehiyen apreziatzen zenutena edo? Txoririk onena edo?
-Ordun?
-Bai.
-Onena? Bueno, karnaba izaten zan /izatentzan/; gero batzutan, e, amak jesten zitun plazara. Arrak bihar zian /bihartzian/ hortako, ta zea, plazan saltzen zitun.

-Bizirik ala...?

-Bizirik, bizirik. Hoiyek bizirik. Ta hola, hola ibiltze(n) giñan.

8. Zigarro biltzen apaizarentzat

- **Erref:** DON-074/014
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:19:21. **Bukatu:** 00:22:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:

Monagilo lana. Goizeko zazpietako meza. Ezkilak jotzen zituzten, denak esnatzeko. Don Eustakio erretzailea zen, eta harentzat zigarro mutxikinak hartzen zituzten ezkontzetan. Arto hostoekin zigarroak egiten. Errazionamenduko tabakoa. Trikimailuak.

Transkripzioa

-Eta monagillo ibili ziñanian...

-Monagillo ibilli gitzanian?

-Ze lan iten zenituen? Monagillo lana zein izaten zan?

-Lana, bueno, ordun mezak izaten zian goizeko zazpitan. Guk jun behar genun ordu erdi bat lenuo. Klao, jun ta /da/ izkilla jotzea. Jotze(n) genitun sei t´erditan lenbizikua. Ta bigarrena zazpik laurden gutxitan. Ta hirugarrena ya zazpitan, ta /da/ meza hasten zan. “O sea”, juten giñan sei t´erditan, jotzen giñun ezkillak, eta esnatzen genun apaiza eta danak, inguruko danak. Ta gue lana hoi, eta geo ba meza, monagillo bezela. Ta gero ordun bagenun beste gauza bat: apaizak, ordun zegon apaizak, Don Eustakio, harrek ba bazun biziya erretzeko era, eta jolin, klaro, tabakoik ez, ordun ez zan /etzan/, rasionamentun ta /da/. Lenbiziko lana guria izaten zan... ezkontzak izaten zian /izatentzian/, ezkontza, bastante ezkontza, ta hor ba juten zian danak elizara, ta sartu baiño leno danak zigarro erretzen. Ta haiyek botatako kolillak, haik danak eliza sartzen zianean, gu atzetik jun ta kolillak biltzea. Danak biltze(n) genitun kaja batea, ta apaizak muturra ta atzetik, guaiza haundi batzuk bazitun, moztutzen zion, ta /da/ papera kendu ta danakin pilla bat, tabako pilla bat iten zun /itentzun/, eta geo harrek paperakin ba beak erretzeko.

-Apaizak hori?

-Apaizak. Eta gu, ni ordun hasi nitzan erretzen. Nere artian: “Apaizantzako ona baldin bada, gutzako ere bai!”. Eta guk paperik ez genun izaten, ta /da/ arto bizarrakin, arto hostuakin, barrengo hostua, biguñena, harrekin, harrekin zigarroak in, ta han ibiltze(n) giñan. Bai.

-Orduan...

-Zigarro erretzen.

-Erre, arto bizarrak?

-Arto bizarrak erre izandu deu, bai, baiño han izaten zan ezkontza bat, ta kolilletatik. Eta gero rasionamentuan zan, ta /da/ eoste(n) genun, sortze(n) genun mutil koxkorretan. Sortze(n) genun tranpak iñez ta /da/. Behin, goatzen naiz nere bizilagun batek ba rasionamentuko tabakoa hartu iten zun beak, eta beak ez zun /etzun/ erretzen, geo saldu iten zun beak. Ta hoi, behin erreklamuan naola, tabakoik ez ta, joe! Han bagenden hiru edo lau, ta: “Hi, harrengana jungo nak! Ta esango zioat Antoniontzako dala”. Ta jun nitzan ta /da/. Nere etxebizitzakua zan bat, ta harri: “Hi, tabakua emateko

Antoniok esan ziak /esantziak/. Kaja tabakua emateko". Ta eman zian /emantzian/, ta ni korrika erreklamo. Ta ez zian /etzian/ kobratu. "E, konponduko nak beakin". "Ba, bale! Konponduko haiz beakin". Ta bueno, goizian geo ikusi zan bestiakin, ta bestiak... gu tontuak izan, ez ezer esan ez, "porque" Antonio horrek emate(n) zigun beak, zigarron bat ematen zigun ta /da/... harrekin bagenun konfiantza. Han jun zan /juntzan/ ne etxea. Ta: "Zer, tabakua zenentzako?". Ta ne ama ta nere aita han, ta joe. Bai, holako trastekeiyak.

9. Umetako lapurretak eta jolasak

- **Erref:** DON-074/015
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:22:51. **Bukatu:** 00:25:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Sagarrak eta udareak lapurtzen ibiltzen ziren umetan. Jolasak: kinkillak, txorro-morro, gordeketa... Aieteko jauregian egoten ziren, guardaren semeekin.

Transkripzioa

-Eta beti nola genun toki bat hola... jolasteko ta ba, beti barrabaskeriyak eiten. Juntatze(n) giñan ordezkatan ta: "Gaur zer? Noa jungo gatxik lapurreta? Hire etxea? Hire etxea? Hire etxea? O noa?". Ta sagarrak ez pazan ba udariak, eta bestela ba mizperuak bagenixkin Aieten, o marrubik... Ta hola ibiltze(n) giñan, batea jun ta /da/ bestea jun ta /da/... -Ta zuen jolasak?

-Gue jolasak, ordun? Gue jolasak ba ostikoka han, geo kinkillak. Kinkillak bagenitun, "o sea" egurrezko... metro erdiko hola egur batzuk, ta mutur batekin, ta haikin lurrian sartu, ta danak gure kinkillakin. Ta bestiak sartzeakuan lurrian, hua bota in behar zenun /behartzenun/. Ta hola ibiltze(n) giñan. Ta bota ezkeo ba hua hartu, jo ta bestiak korrika jun bihar zun /bihartzun/ billa. Ta hola ibiltze(n) giñan. Gero, bata bestian gaiñian Txorro Morro Piko Taiyo Ke ta horta ere bai.

-Hori nola da? Gaiñian salto itia?

-Bai, gaiñian jartze(n) giñan.

-Bata bestian atzian... helduta, ez?

-Bai, bai. Horta ta ba... askotan 'e "según" zein zan /zeintzan/, geo... gordeketa. Eta "según" zein zan /zeintzan/ ba gordeketa: "Hi, hiri tokatu zaik! Hiri". Hua han utzi, ta jo, atsalde guztiya hua, pasatzen zun gue billa, ta gu alde inda noabaitera, jun nahi bagenun bea gabe. Ta hola, hola. Geo, palaziyuan. Gehiyena ibiltze(n) giñan gu jolasten ba palaziyuan. Palaziyuan han bazegon tenis zea, zelai bat tenisean jokatzekoa, eta han ibiltze(n) giñan 'e bai fubolian ta /da/... Ze hango semiak, guardan semiak ba launak zien ta /da/... geo han porteiya o zakanaren semia 're laguna zan... ba Lukas horren koñadua.

10. Dotrina igandetan, Don Eustakioekin

- **Erref:** DON-074/016
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:25:02. **Bukatu:** 00:26:15

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Pilotan jauregiko garaje batean egiten zuten, ezin zuten elizan ibili. Don Eustakio Iriarte apaiza, Ibarakoa. Dotrina, igandetan.

11. Munibe eskolako oroitzapen onik ez

- **Erref:** DON-074/018
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:30:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

<p>Eskolan umetan maistra batekin ibili zen, eta gero Antiguako Munibe eskolan, maristekin 14 urte arte. Oroitzapen txarrak ditu: soldadu jantzita ipintzen zituzten, Cara al Sol kantatzen. Dena erdaraz. Zigorrak. Lotu egin zuen behin fraide batek. Jo ere egiten zuten, baita Aieteko apaizak ere. Ama denak borrokan ibiltzen ziren semeen barrabaskeriak zirela eta.</p>

12. Sagardoa lapurtu eta erdi mozkortuta

- **Erref:** DON-074/020
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:30:47. **Bukatu:** 00:33:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Antiguarako bidean Flores sagardotegiko Mariari zaldi-karrotik sagarrak eta sagardoa lapurtzen zizkioten. Behin konturatu egin zen, eta amarengana joan zen. Sagardoari kortxoa nola ateratzen zioten.</p>

13. Umetako jolasak

- **Erref:** DON-074/021
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:33:00. **Bukatu:** 00:33:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Neskak eta mutilak ez ziren elkarrekin jolasean ibiltzen. Euskaraz egiten zuten lagun artean.

14. Goserik ez, baina nahi beste ere ez

- **Erref:** DON-074/023
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:34:13. **Bukatu:** 00:36:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Errazionamendua, gose garaia. Pentsua eta algarrobak ere jan izan ditu. Katuak Muntora eramaten zituzten; izebak prestatzen zien untzia zelakoan. Bera-Beran taloak egiten zituzten. Aitak arrandegian egiten zuen lana, Pasaian.

15. Arraina bai, baina oliorik ez

- **Erref:** DON-074/025
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:36:50. **Bukatu:** 00:38:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Natura » Flora

Laburpena:

<p>Aitaren lana: baporetan zetozen arrainak klasifikatu. Partila. Arraina bai, baina oliorik ez zegoen. Manteka. Tramana, bisigua, katuarraina, perloia, txitxarroa... legatza garestia zen.</p>

16. Estraperloko olio eta ogi zuria

- **Erref:** DON-074/027
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:39:14. **Bukatu:** 00:43:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Babarruna. Eskolako fraideak eskatzen zizkion, garbantzuz truke. Estraperloko kontuak. Olioak. Emakume ogi saltzaileak; bost pezetan. Ogiak jarrita gona barrenean. Anekdotak: ogiz betetako furgonetari tiro egin zioten Aieten, geratu ez zelako. Soldaduak non egoten ziren lotan.

17. Franco Aieteko jauregia

- **Erref:** DON-074/029
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:43:39. **Bukatu:** 00:44:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Franco Aieteko jauregia egoten zen abuztuan. Batzuetan irailean ere bai. Baporea badien izaten zuen.

18. Aieteko festak

- **Erref:** DON-074/031
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:44:31. **Bukatu:** 00:45:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>Aieteko festak. Kukaña, bakailaoarekin. Semper anaiak. Herri-kirolak. Meza ondoren ardoa debalde, batzuetan.</p>

19. Gabonetan kantu eskea eta igandetako dantzaldiak

- **Erref:** DON-074/033
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:45:53. **Bukatu:** 00:49:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Gabonetan etxez etxe kantuan. Bertsoak kantatzen hasi da. Neska-mutilak dantzan ibiltzen ziren Azken Portun igande arratsaldetan. Pitxi anai-arrebak, Antiguak. Auzo batzuetan bai, baina Aieten ez zuten kongregaziotik botatzen helduta dantza egiteagatik.

20. Toka eta bolatokiak

- **Erref:** DON-074/036
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:49:43. **Bukatu:** 00:53:28

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Toka. Manuel Matxain zen onena tokan. Japoniara ere joan zen. Bolatokia Erramunen. Apustuak, pezeta lurrera. Bederatzi birla eta txaparroa. Tokan, hamaika pauso eta sei fitxa. Erronda jokatzeko zuten Munton eta Floresen.

21. Sagardotegietako giroa

- **Erref:** DON-074/037
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:53:28. **Bukatu:** 00:55:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Sagardo garaia. Munto eta Flores sagardotegiak. Kupelak hustu arte. Behin, Munton 3.500 litroko kupela egun batean hustu zen. Mutilak bakarrik. Auzoko tabernak.

22. Irubidera dantzara

- **Erref:** DON-074/038
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:55:25. **Bukatu:** 00:57:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Neskak ezagutzeko garaia. Azken Portu. Irubidera joaten ziren, eta gero Lasarteko Zepa tabernara meriendatzera, txerri hankak jatera. Neska laguntzea oso noizean behin. Autobusean eta oinez. Geroago, motoan.</p>

23. Bizikleta, zatika eresia

- **Erref:** DON-074/039
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:57:20. **Bukatu:** 00:58:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Karakolak salduta lortu zuen lehen bizikleta. Miner bizikleta alokairu dendakoari zatika erosi zizkion piezak.</p>

24. Dantza irakaslea

- **Erref:** DON-074/043
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 01:00:45. **Bukatu:** 01:02:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Dantzan nola hasi zen, Los Angeles eskolan. Dantza irakasle ere ibili zen Alde Zaharrean eta Amaran. Epaimahaian egon da lehiaketa askotan. Emaztea eta alaba ere trebeak dira dantzan.

25. Arratera dantzara

- **Erref:** DON-074/045
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 01:02:50. **Bukatu:** 01:04:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

Neska-mutilak ziren dantza taldean. Bikoteka hartzen zuten parte lehiaketetan. Nora joaten ziren dantzara. Arratera, egun osorako; trenean Maltzagaraino. Tranbiak, trena eta trolebusak. Gaiztakeria: pertxa kentzen zioten trolebusari.

26. Lehenengo lana, jergoiak konpontzen

- **Erref:** DON-074/048
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 01:05:29. **Bukatu:** 01:09:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Lehenengo lana: jergoiak konpontzen, Donostian, San Bartolome kalean. Hondartzara hondar bila egunero, katuarentzat. Nagusiaren trikimailuak eta bere erantzuna.

27. Arotzeria tailerretan

- **Erref:** DON-074/049
- **Iraupena:** 0:04:16. **Hasi:** 01:09:08. **Bukatu:** 01:13:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

Arotzeria batean lanean, Donostian, bi-hiru urtean. Peoia gaixo zegoela-eta karroarekin ibili behar izan zuten. "Artes y Oficios"-era joaten zen gauetan. Alde Zaharreko beste tailer batera joan zen, Rekartera. Aulkiak, mahaia. Pinua. Zazpi pezeta ordu extrak.

28. Soldadutza Loiolan

- **Erref:** DON-074/050
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 01:13:24. **Bukatu:** 01:15:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Loiolan egin zuen soldadutza. Patata negozioa zeukan militar batekin tratua zuen aitak, eta hark esan zion nola egin. Sukaldean patata zuritzen, guardiak eta garbiketa.</p>

29. Ehizako lehenengo eskopeta

- **Erref:** DON-074/051
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:15:43. **Bukatu:** 01:18:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Ehizan noiz hasi zen. Eskopeta. Agurainera joaten ziren galeperretara. Errioxara, Soriara. Txoritan beti. Hernaniko kuadrillarekin joaten zen. Aieten bertan oilagorrak, kulixkak, birigarroak...</p>

30. Aiete nolakoa zen lehen; desagertutako baserriak

- **Erref:** DON-074/053
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 01:18:12. **Bukatu:** 01:22:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Aiete lehen nolakoa zen. Sei bat etxe zeuden, baserriak eta txaletak. Izenak esaten ditu. Laurogei bat baserri desagertu dira; pilatxo bat aipatzen ditu. Oriamendi.

31. Baserriz baserri txartelak banatzen

- **Erref:** DON-074/054
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 01:22:13. **Bukatu:** 01:25:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Baserri denak ezagutzen zituen, monagilo zenean urtean behin txartelak banatzen zituelako. Jauna hartzera joan ez zirenengana joaten zen gero apaiza, bazkalorduan. Baserrien arteko harremana. Txekorra egiten nola lagundu.

32. Fruta arbolak eta baratzea, baserri denetan

- **Erref:** DON-074/056
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:25:18. **Bukatu:** 01:26:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Sagastiak eta fruta arbolak zituzten baserri guztietan, eta tratua ere bai. Astoarekin joaten zen Errekakoa, gainerakoak zaldi-karroarekin eta oinez, kale-zestoa buruan jarrita. "Maria tontor-haundi". Burukoa.</p>

33. Perratzailea baserriraino

- **Erref:** DON-074/057
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 01:26:48. **Bukatu:** 01:28:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Perratzailea Donostiatik joaten zen, deituta. Amaran eta Antiguan zeuden perratokiak. Zaldi-karro asko ibiltzen ziren Donostian. Tresnak. Zein abere ferratzen ziren.

34. Hernanira eta Tolosara feriara

- **Erref:** DON-074/058
- **Iraupena:** 0:04:23. **Hasi:** 01:28:58. **Bukatu:** 01:33:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

<p>Hernanira feriara. Aitona Tolosara ere joaten zen, tranbian. Sagarra eta babarruna ekartzen zuen, saltzeko; biltegi bat zeukan Antiguan. Zesto motak eta nolakoak ziren: kale-zestoa, kopa, sarea, saskia. Ferian erosten zituzten.</p>
<p>

35. Aiete ez zen ardi eta gari tokia

- **Erref:** DON-074/060
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:33:32. **Bukatu:** 01:34:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Ardirik ez zegoen Aieten. Bi-hiru baserritan egoten ziren, baina neguan bakarrik. Garia ereiteko ohiturarik ere ez; gerraostean jarri zuten, baina ez zen horitu. Errotara Hernanira. Kontrabandoa.</p>

36. Errekak, arroak eta arrantza

- **Erref:** DON-074/061
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 01:34:55. **Bukatu:** 01:38:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Errekak. Bidebieta 2 dagoen tokian zegoen bat. Erreka baserria. Aingirak harrapatzen zituen, gaztetan. Nola egiten zuen. Angulak. Arroketara joaten ziren lapa bila.

37. Aieteko jauregian ikasi zuen igerian

- **Erref:** DON-074/062
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:38:00. **Bukatu:** 01:39:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Bainuak, hondartzan eta Aieteko jauregiko aintziran. Hantxe hasi zen arrantzan, berak egindako amuekin. Arrain gorriak ere jan izan ditu. Guardak egin zion errieta saioa.</p>

38. Kontxa eta bainujantziak

- **Erref:** DON-074/063
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 01:39:36. **Bukatu:** 01:42:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

<p>Kontxako hondartza. Bainujantziarekin lotutako anekdota, soldadutza garaikoa: isuna bota zioten. Hondartzako udaltzaina. Nesken bainujantziak.</p>

39. Estraperloko kontuak eta "guardavino"-ak

- **Erref:** DON-074/064
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 01:42:47. **Bukatu:** 01:45:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

"Guardavinos"-en lana. Kobratu egiten zuten. Iruñeko trenean etortzen ziren estraperlistak, eta zakuak botatzen zituzten. Babarrun zakua hartu zuen behin, baina aitak bueltan bidali zuen. Etxean hildako txekorrak ere ezkutuan eramaten ziren.

40. Aietearrekin lotutako gerrako kontuak

- **Erref:** DON-074/067
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 01:47:14. **Bukatu:** 01:50:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Gerrako kontuak, Aietekoak. Migel Matxain eta Joxe Mari Isasa. Matxainen bila joan zirenekoa, nola egin zuen ihes. Isasa makietan ibili zen, eta Madrilen harrapatu zuten. Torturatu eta fusilatu egin zuten.

41. Gerran, elkarren kontra aritzea tokatu

- **Erref:** DON-074/069
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:50:48. **Bukatu:** 01:52:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Aitak berrogei urte inguru zituen gerra garaian. Militarizatu egin zituzten Pasaian. Osaba bat Francok eraman zuen. Lehengusuak frontean bata bestearen kontra tokatu.

42. Komuna eta labaderoak

- **Erref:** DON-074/071
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 01:52:35. **Bukatu:** 01:56:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Komuna nolakoa zen. Siesta egiten zuen han. Garbiketak, fregaderan. Dutxarik ez zuten. Komuneko papera. Orduko egunkariak. "Elefante" papera. Labaderorik ez zegoen, baina erre kara joaten ziren batzuk. Aska. Hoteletako arropak ere garbitzen zituzten etxean.

43. Sutarako egurra, ikatza eta koka

- **Erref:** DON-074/072
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:56:35. **Bukatu:** 01:59:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Sua. Ekonomia zuten. Egurra mozten zuen. Ikatza. "Coc", gas lantegitik ekarria. Langileek zakua ateratzeko aukera zuten. Baserrian maiorazgoa eta besteak lanera. Aieteko jendea zein lantegitan zebilen.

44. Mitxelin eta gas lantegia

- **Erref:** DON-074/074
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 01:59:14. **Bukatu:** 02:02:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Soldadutza eta gero, Mitxelin gurpil lantegian aritu zen. Alanbrea mehetzeko makina. Gero Donostiako gas lantegian. Denetik egin zuen han. Kontagailuak ikusten etxez etxe. Arratsaldetan banaketa egiten zuen txerriki biltegi batentzat. Emaztea ere han hasi zen.

45. Perfumeriako produktuak saltzen

- **Erref:** DON-074/075
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 02:02:15. **Bukatu:** 02:04:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Perfumeriako produktuak saltzen hasi ziren. Bilboko laborategi batentzat egin zuen lana gero. Autoa utzi zioten, Seat 600. Eduki zuen hurrengo kotxea.

46. Lehenengo automobila, butanoa partitzeko

- **Erref:** DON-074/077
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 02:04:46. **Bukatu:** 02:07:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Butanoa partitzeko erosi zuen lehen automobila, 22.000 pezetan. Zenbat litro gasolina gastatzen zituen. Ezkerrean zuen bolantea.

47. Txanponekin zebilen gas kontagailua

- **Erref:** DON-074/079
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 02:07:50. **Bukatu:** 02:09:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak

Laburpena:

1958an sozio egin zen Ondargain elkartean, Marina kalean. Txanponekin zebilen gas kontagailua.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com